



Udalsarea 21en batzorde teknikoa

48. bilera. 2015eko abenduaren 2a



Tailerreko emaitzak

"Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren oinarriak tokiko ikuspegitik zehazten eta egiaztatzen"

Joan den abenduaren 2an, Udalsarea 21en Batzorde Teknikoaren 48. bileran, 12:30etik 14:00etara, honako **tailer** hau egin zen: **Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren oinarriak tokiko ikuspegitik zehazten eta egiaztatzen.**

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak eta Udalsarea21ek sustatutako tailer hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren prestaketa-prozesu partekatua barnean txertatzen da; hark ezagutza eta tokiko ikuspegia prozesu horretara gehitzea du helburu.

Testuinguru horretan, eta modu espezifikoan, honako hauek izan dira tailerraren **helburu zehatzak**:



Tailerraren helburuak:

1. Azken urteetan biodibertsitate arloan parte hartu duten udalerriek/eskualdeek **garatutako ekintza-ildo nagusiak ezagutzea.**
2. Egindako lana baloratzea, **arrakastak eta desafioak** edo oraindik betetzeko dauden erronkak **identifikatuz.**
3. Estrategia prestatzeko orduan **Udalen laguntza** sustatzea, **galdetegi zehatz bat** betez.

Hala, proposamena **taldearekin ibilbide bateratu bat egitea izan da.** Ibilbide horri ekiteko, udalerrri parte-hartzaileek arlo horretan garatzen dituzten lan-ildo nagusiak partekatu dira; horren ostean, egindako lanaren balorazioa egin da, arrakastak eta desafioak edo oraindik betetzeko dauden erronkak identifikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiak behar bezala erantzun beharko bailieke horiei guztiei.

Jarraian, prozesuan zehar lortutako emaitzak xehatzen dira. Emaitza horiek ez lirateke posible izango **honako udal eta eskualdeko entitate hauetako udal-langileen partaidetzarik eta protagonismo aktiborik gabe:**

**Elgoibar-Deba - Debegesa - Abanto-Zierbena - Goieki - Legazpi - Mungia -
Aduna - Gernika - Zuia - Bilbo -Bermeo**

Estrategia idatzi duen taldearekin eta tailerra erraztu duen taldearekin batera.




Tailerren emaitzak

1. Udallerri/eskualde parte-hartzaileek azken urteetan biodibertsitate arloan garatu dituzten ekintza-ildo nagusiak

Zertan lan egin dute azken urteetan udallerri parte hartzaileek, biodibertsitateari dagokionez? Zein dira garatutako jarduketako ildo nagusiak?

Galdera horiek gida gisa hartuta, eta modu kolaboratzailean eta bisualean, tailerrean parte hartu duten pertsonak beren udalek/eskualdeek azken urteetan garatu dituzten jarduketako ildo nagusiak zerrendatu dituzte, pixkanaka:



Honako hauek dira, hain zuzen.



Biodibertsitate arloko jarduketa-ildo nagusiak, udalerrri/eskualde parte-hartzaileetan:

Plangintza:

- Udalerriko biodibertsitatearen **diagnostikoa eta kudeaketa-plana** egitea.
- **Hiriko biodibertsitatea:** hiriko eremu eta gunen berdeen sarea handitzeko eta horietako biodibertsitatea eta kalitatea hobetzeko diagnostikoa eta jarduketa-plana egitea.
- **Belardi eta landazabaletako ekosistema:** momentuz, babes-formarik ez duten eta baserrietako jarduerarik ezaren eraginez desagertzen ari diren eremu horiei balioa emateko lehenengo jarduketak. Gainera, horiek babestea lehen sektoreko jarduera errazteko modu bat da.
- **Paisaia-plana**, udalerrian korridore berdeak planifikatuz eta hondakindegia zahar bat berreskuratuz.
- **Udalerrian Natura 2000 Sarea planifikatzea**, Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta nahastutako Udal guztien partaidetzarekin. Zentzu horretan aurrerapauso handia egin arren, aurreikusitako neurriak aplikatu eta garatu ahal izateko baliabideak izatea da gaur egungo erronka.

Kudeaketa eta garapena:

- Udalera iristen diren jarduera-proiektuetan edo planetan **tokiko biodibertsitatea babesteko irizpideak eta neurriak txertatzea**.
- Ibaietan jarduteko edo esku hartzeko jarduketa ororen aurrean **protokolo orokorrak garatzea**.
- **Lurraldea zaintzeko programak**. Udalak lurren zaintza, babesa eta kontserbazioa bermatzeko lursailak bereganatzea.
- Zumaia, Deba eta Mutrikuko **Geoparkeko Biodibertsitate Estrategia** garatzea. UNESCOk babestutako eremua da, eta honako eragile hauek parte hartzen dute: Eusko Jaurlaritza, Udalak eta gizarte-eragileak –hasierako ekimena Udalena izan arren–. Estrategia horrek bateratu egiten ditu ingurunearen zaintza eta babesa eta turismo berdearekin lotutako jardueraren garapena.



Biodibertsitate arloko jarduketa-ildo nagusiak, udalerrri/eskualde parte-hartzaileetan:

Kudeaketa eta garapena:

- **Dunak berreskuratzeko** programen garapena.
- **Turismo berdearen** sustapena: inguruneko itsas biodibertsitateari balioa ematea, hura ezagutu eta behar bezala gozatzea.
- Udalerriko **baratze ekologikoen programa**.

Ekintza zuzena:

- Ibai, belardi eta abarren gisako **habitatak mantendu eta hobetzeko** baterako ekintzak –Udala + gizarte-eragileak–.
- **Espezie inbaditzaileak** deuseztatzeko eta berreskuratutako eremuetan espezie autoktonoak sustatzeko ekintza zehatzak.
- **Asiako liztorraren** aurkako ekintza espezifikoak.
- Bisoi europarraren edo anfibio batzuen gisako **espezieak ez desagertzeko** programa eta jarduketa zehatzak. Lan hori Eusko Jaurlaritzarekin modu koordinatuan eta haren laguntzarekin garatzen ari da.
- **Krainer horma:** Urola ibaiko jarduketa zehatzak, ibaiko ezpondak naturalizatu eta ekosistema berreskuratzeko. Horiek garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dugu.
- **Eremuak berriz naturalizatzeko ekintzak.** Eskolako 21 Agenda programaren bitartez, esaterako, intsektu-tipologia batzuk txertatu dira udalerrian (intsektuen hotela).



Biodibertsitate arloko jarduketa-ildo nagusiak, udalerrri/eskualde parte-hartzaileetan:

Sentsibilizazioa eta hezkuntza:

- Udalerriko geodibertsitatearekin eta biodibertsitatearekin lotutako **hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak** garatzea:
 - Udalerriko balioei eta ondare naturalari buruzko argitalpenak eta hedapen-ekintzak.
 - Eskolako Agenda 21 programan laguntzea, programazioren batean, hark udalerriko geodibertsitatearen eta biodibertsitatearen gaiak jorratu baititu.
 - Ingurumena interpretatzeko zentroak.
- Esparru horretan sentsibilizazio-ekintzak gauzatzen dituzten elkarte eta kolektiboetara xedaturiko **diru-laguntzen** udal-lerro bat garatzea.





2. Egindako lanaren balorazioa: lorpen nagusiak eta etorkizunerako desafio edo erronka nagusiak

Azken urteetan biodibertsitate arloan egindako tokiko esparruko lana:
Zer lortu da? Zein dira lorpen horiek?
Etorkizunerako zein desafio eta erronka identifikatu dira?

Udalerrri parte-hartzaileen aldetik biodibertsitate arloan garatutako jarduketa-ildo nagusiak ezagutu eta partekatzeak analisisan aurrerapauso bat ematea ahalbidetu du: tailerraren bigarren zatian egindako lana baloratu da, lorpen nagusiak eta etorkizunerako erronkak identifikatuz.

Horrela, honako hauek dira taldearen iritziak eta ondorioak.

Tokiko esparruan lortu diren biodibertsitate arloko lorpen nagusiak:




- Pixkanaka, eremu naturalen **babes-mailetan** modu positiboan eragiten duen **konpromiso politiko** bat agertzea.
 - Natura 2000 Sarea eta politika europarrak modu erabakigarrian eta positiboan eragiten ari dira balioa duten eremu batzuen babesari eta kudeaketari dagokionez.
 - Biodibertsitatea eta geodibertsitatea babesteak duen garrantziaren inguruko kontzientzia handiagoa hartzea.
- **Babestutako eremu naturalen** kopuruak gora egin du: ekosistema urtarrak (ibaiak eta errekek), baso autoktonoak, belardiak eta paisaiak.
- Lurraldeko ondare naturalarekiko eta biodibertsitatearekiko **ezagutza handiagoa** dago –oro har nahiz udalerrian–.
- Udalsarea21, lurraldean zenbait gairen inguruko kudeaketa-**esperientzia egokiak ezagutu eta partekatzeko** plataforma gisa –biodibertsitatea da horietako bat–.

Tokiko esparruan lortu diren biodibertsitate arloko lorpen nagusiak:




- Biodibertsitatea eta geodibertsitatea **aktibo ekonomiko** gisa ikustea:
 - Turismo berdearen lehen garapenak.
 - Ingurumen arloko interpretazio- eta hezkuntza-zentroak.
- **Ekintza zehatzeko programen garapen koordinatua** honako arlo hauetan:
 - Ibaien ingurumen-berrezarpenerako programak.
 - Korridore berdeen sarea.
 - Espezie inbaditzaileen deuseztapena.
 - Hiri- eta landa-eremuetako Asiako liztor-habien deuseztapena.
- **Herritarren partaidetza** handiagoa ingurumenaren kudeaketa-gaietan.
- Gizartea **sentsibilizatuagoa dago**:
 - Ingurumen arloko hezkuntza-programen garapena ikastetxeetan (Eskolako Agenda 21).
 - Herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak: hitzaldiak, irteera gidatuak, argitalpenak...
- Interes-eremuak berreskuratu, babestu eta hobetzeko **udal-proiektuen** garapena, administrazio desberdinen partaidetzarekin. Adibidez:
 - Kokapen edo gune espezifikoien azterketa eta hobekuntza.
 - Gorbea Mendiaren hegaletan bizi diren anfibio-espezieak babesteko urmaelak eraikitzea.





Honako hauek dira taldeak identifikatu dituen eta Estrategiak barne hartu beharko lituzkeen etorkizunerako desafioak eta erronkak:


Biodibertsitate arloko tokiko esparruko etorkizunerako desafio eta erronka nagusiak:



- **Pedagogia eta sentsibilizazio handiagoa arduradun politikoei.** Oso zaila da programa politikoetan biodibertsitatearen gaia aurkitzea. Gainera, ezagutza handiagoak baliabideen eskaintza handiagoa eragingo du.
- **Koordinazio eta baterako lan handiagoa** Natura 2000 Sarean lan egiten duten erakundeen artean: Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak...
 - Esaterako, Eusko Jaurlaritzak eremu babestuak aitortzen ditu, baina kudeaketa Aldundiei dagokie batez ere, eta ez dira behar adina baliabide xedatzen.
- Lurraldeko biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen inguruko **ezagutza handiagoa**, eta beraz, **babes eta zaintza** handiagoak. Ez dadila Natura 2000 Sareko eremuetara bakarrik mugatu eta honako hauek gaineratu daitezela:
 - Baso autoktonoen babesa.
 - Sistema urtarren babesa.
 - Belardi eta larreen babesa.
- **Irizpide komunen** zehaztapena biodibertsitatearen kudeaketan esku hartzen duten Administrazioen aldetik. Ibaien gaiari dagokionez, esaterako.
- EAEko lurraldean dauden jabetza pribatuen kopuru handia dela-eta, eremu naturalen zaintza eta jabeen sentsibilizazioa erraztuko duten **lurraldea zaintzeko sistemak edo beste programa batzuk** sustatu behar dira. Zentzu horretan, gizarte-eragileekin gauzatutako lankidetzak publiko-pribatua oso interesgarria izan daiteke.
- **Espezie inbaditzaileen** kudeaketa hobetzea: horiek ezabatzeko metodologia bateratuak, monitorizazio-/jarraipen-sistema hobeak eta koordinazioa.
- Degradatutako eremuak eta **guneak berreskuratzeko** programak.
- **Pedagogia eta sentsibilizazio handiagoa herritarrei** eta eragileei (lehen sektorea, enpresak...). Lurraldean dugun biodibertsitateari balioa eman behar zaio, haren balio kulturala ezagutarazi, osasun arloan... Horrek gizarte-mugimendu aktiboa eragingo du naturaren eta biodibertsitatearen alde.



Biodibertsitate arloko tokiko esparruko etorkizunerako desafio eta erronka nagusiak:



- Lurraldea eta paisaia zaintzeko orduan **baserriaren eta lehen sektorearen eginkizuna aitortu eta hari balioa ematea.** Horretarako, ahalduntze-jarduerak, pedagogia eta prestakuntza... barne hartuko dituen lan-ildo bat garatu behar da, Landa Garapenerako Agentzien gisako eragileekin lankidetzan.
- Gaiari buruzko **proiektu berritzaileak eta esperientzia onak** ezagutarazi eta partekatzea. Beren ekosistemei arreta jartzen dieten eta horiek babestu eta zaintzen dituzten Udalerri Berdeen Sarea sustatzea.
- **Hiriko biodibertsitatea:** hiriko eremu eta gunerak berdeak areagotzea, horien biodibertsitatea kudeatuz eta sustatuz. Lorezaintzako, hirigintzako eta abarretako agiri eta kontratazioetan biodibertsitate-irizpideak gehitzea.

Ordu eta erdiz lan egin ostean, honela amaitu da tailerra:

- Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategian parte hartu duten pertsonen lankidetzara eskatu da, **galdetegi zehatz bat betez.** Hura udalerrri guztietara bidaliko da Udalsarea21en Idazkaritza Teknikoaren bitartez, online eta tailerra amaitu ostean.
- Tailerrean parte hartu duten teknikarien **inplikazio aktiboa eskertu da.**